



Hezkuntzako kontseilaria (Carlos Gimeno)
Iruñeko Orfeoiaren zuzendaria (Daniel Sánchez)
Gainerako agintariok
Arratsalde on guztioi!

Ekitaldi ederra dugu gaur, eta hemen guztiok bildu garela aprobetxatuta, gogora ekarri nahi ditugu hil diren pertsona guztiak. [Koronabirusak](#) eragindako pandemian hiltzeak bakardadean eta inolako agurrik gabe hiltzea ekarri du. Zaila da heriotzak eragiten duen barruko min hori kudeatzea, are gehiago kontuan hartzen badugu ezin izan garela egon hil den pertsonaren ondoan, edo haren ahotsa entzun, azken laztana egin, edo eskutik gogor heldu, hil baino lehen.

Eta, bidezko den moduan, funtsezko eskubidea baita, HEZKUNTZA omentzen dugu, letra larriz idatzia. Hezkuntza gizarte osoaren ardura da. Hori agerian jarri da orain, inoiz baino gehiago, eta, aldi berean, posible dela erakusten ari gara. Ez dago zalantzarik: aldi honen amaieran, gogoeta egin beharko da lasai hezkuntza komunitate osoak behar duen ikaskuntza motari buruz. Horrela, egindako ahalegina ez da alferrikakoa izanen, eta **HEZKUNTZA** irabazle izanen da. Une zailetan agertzen dituzte pertsonak eta erakundeek beren benetako balioak, ardura eta egokitzeko gaitasuna, hezkuntza komunitatea orain erakusten ari den bezala.

Ziur aski, gizarte eta eskola gisa ezagutu dugun unerik zailena da hau. Izan ere, ez dugu inoiz izan berrogeialdi orokorrik, ez genuen inoiz pentsatu alarma-egoera bat hain azkar ezarriko zenik, ezta zer ekarriko zuen berekin, eta ez dira inoiz hainbeste senide eta lagun hil erabateko bakardadean. Gaur egun oraindik, mundu osoko biztanleriaren ia heren bat derrigorrezko itxialdian dago. Alde batetik, kanpoko mugak ixten dira, barneko kontrolak jartzen dira, segurtasunaren eta kontrolaren paradigma hedatzen da, eta isolamendua eta urrutze soziala exijitzen dira. Beste aldetik, orain dela gutxira arte Estatuaren murrizketa politikak defendatzen zituztenek ere beren diskurtsoa berrantolatzen dute egun, estatuaren beharrezko esku-hartzea aldarrikatze aldera, osasun publikoa eta hezkuntza gogor astindu zituzten heretura programak gaitzesten dira...

Pandemia honek agerian jarri ditu gizartearen indarguneak eta pitzadurak eta, indargune horien artean, osasun sistemaa eta hezkuntza daude. Jakiten ikasi, egiten ikasi, elkarrekin bizi izaten ikasi, erantzukizuna, ahaleginak, dedikazioa, egokitzeko gaitasuna... Horiek guztiak jarri dituzte agerian hezkuntza komunitateak, ikasleek, familiek, irakasleek, zuzendaritza taldeek, irakasle ez diren langileek eta hezkuntza administrazioak. Itxialdian, garrantzitsua izan da harremanari eustea haur eta familia guztiarekin, urduritasunak arintzea eta segurtasun sententzia helaraztea, mezu egokiena ezarri nahian: «Zaindu gaitezen, eta zaindu dezagun albokoa».

Orain, esku guztiak behar ditugu ekarpenak egiteko eta batzeko. Erakundeek entzuten jakin behar dute, eta sentiarazi inor ez dela kanpoan geratzen eta beti daudela irtenbide onak, gure arazoak aintzat hartzen dituztenak. Geure buruari galdetu behar diogu ea zer egin dezakeen gutako bakoitzak laguntzeko. Pertsona guztien adimen kolektiboak arrakasta handiak lortzera eraman gaitzake. Bide hori akordioaren eta itunen emaitza da, eta, horregatik, hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politikoa lortzearen garrantzia azpimarratu nahi dut hemen. Agerikoa bezain beharrezkoa da, gure ustez.



Egoera ekonomikoa eta soziala hain larria denez, Nafarroako Eskola Kontseiluak hezkuntza komunitate osoari eta Administrazioari eskatzen die elkartasuna, erantzukizuna eta eskuzabaltasuna ager ditzatela, baliabide guztiak optimizatu eta gehitzeko behar diren antolaketa neurri guztiak har daitezzen.

Orain, inoiz baino gehiago, ekitatea bermatu behar da, haur bakoitzari behar duena emanda.

Horixe da, hain zuzen ere, mundu guztiak entzun nahi duena planetako edozein bazterretan: **“Lasai, seguru zaude, nik babestuko zaitut, egoera honetatik irtengo gara”**.

Manuel Martín Iglesias

Lehendakaria